OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALA
Udal Osoa
AKTA

ZB. 2026 / 11

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/09/23
Tokia: Udaletxeko areto nagusian
Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure
Zinegotziak:

EH Bildu
- Agustin Lekuona Irastorza
- Olaia Lasa Olaziregi
- Garazi Urdampilleta Astibia
- Ibon Mitxelena Fernandez
- Nora Velez del Burgo Zalakain
- Jexux Olaziregi Bagües
- Edorta Fernandez Etxepeteleku
- Oihana Irastorza Gonzalez
- Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
- Ekain Susperregi Ibarguren
- Jon Albisu Mendiburu

EAJ-PNV
- Janire Mitxelena Lekuona
- Rafael Bergaretxe Urdampilleta
- Maitane Larruskain Agirre
- Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Oihane Mallagaray Revilla

Ezin etorria adierazi dute:

Ibintza Iragorri Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko bi batzarrei dagozkien aktak onartu ziren.

2. Arritxuloko oroimen plakak jasan duen erasoa salatzeko mozioa onartu eta landu zen.

3. Oiartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haurrentzat, beren hezkuntza- eta zaintza-ingurune pertsonal eta kolektiboan, jantoki-zerbitzua emateko jarduera ekonomikoa eta erregelamendua behin betiko onartu ziren.

4. Urmendi eraikinetako hainbat unitateen lagapena Haurtzaro Ikastolaren alde uztea onartu zen.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

5. 2026rako Zerga Ordenantzaren hirugarren aldaketa onartu zen espedientean jasotako baldintzetan.

6. 2027rako Zerga Ordenantzen aldaketari hasierako onespena eman zitzaion.

7. Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari 2026ko irailetik abendura bitarteko ekarpena egitea onartu zen.

8. Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- hornidura kontratuaren esleipena onartu zen.

9. 2027. urteko jai eguna berretsi zen.

10. 2026/08 kreditu aldaketaren berri eman zen.

11. 2026/09 kreditu aldaketaren berri eman zen.

12. Beste organoen jardueraren jarraipena egin zen.

13. Eskari-galderak.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2026ko uztailaren 29an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta eta 2026ko abuztuaren 6ean egindako Udal Osoko ez-ohiko bilkuraren akta onartu ziren gehiengo absolutuz, aldeko 16 bozkarekin (EH Bildu 12, EAJ/PNV 4)

-II-

ARRITXULOKO OROIMEN PLAKAK JASAN DUEN ERASOA SALATZEKO MOZIOA

Alkateak hitza hartzen du eta mozioa irakurtzen du:

"Oiartzungo Udalak, osatzen duten talde politiko guztien adostasunez, irmo eta zintzo salatzen du Arritxuloko oroimen plakak jasan duen eraso berria.

Igarotako gertakarien aurrean, Udal honek honako hau adierazi nahi du:

Bidegabea eta arbuiagarria: Bizikidetzaren, oroimen historikoaren eta giza eskubideen aurkako erasoa da hau. Bizikidetza ez da eraikitzen bestearen oroimena ezabatzen saiatuz, ezta elkarren arteko errespetua urratuz ere.

Errespetua eta Errekonozimendua: Biktima guztiek eta beren senideek zor zaien errespetua, egia, justizia eta errekonozimendua behar dituzte. Plaka honen xedea da babesa eta oroimena eskaintzea, eta eraso honek ez du bere esanahia gutxituko.

Bizikidetza demokratikoarekiko konpromisoa: Motibazio politikoko zein bestelako indarkeria mota guztiak gaitzesten ditugu. Oiartzunek bakean, askatasunean eta elkarrizketan oinarritutako etorkizuna eraikitzen jarraituko du.

Plaka berriz jartzea: Udalak beharrezko baimenak emango ditu plaka berriz ere bere lekuan jartzeko.

Oiartzungo Udalak elkarrizketaren, bakearen eta bizikidetza demokratikoaren aldeko apustu sendoa berresten du, eta herritar guztiei dei egiten die errespetuan eta enpatian oinarritutako herria eraikitzen jarraitzeko."

-III-

OIARTZUNGO UDALAK 0-2 URTE BITARTEKO HAURRENTZAT, BEREN HEZKUNTZA- ETA ZAINTZA-INGURUNE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOAN, JANTOKI-ZERBITZUA EMATEKOA

Alkateak hitza hartzen du eta ebazpen proposamena azaltzen du.

2026ko abuztuaren 6an egindako ez-ohiko Udal Osoko Bilkuran, honako erabaki hau hartu zen:

> *"Lehenengoa.- Oiartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haurrentzat, beren hezkuntza- eta zaintza-ingurune pertsonal eta kolektiboan, jantoki-zerbitzua emateko jarduera ekonomikoa gauzatzeko espedienteari hasiera ematea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren*

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

97.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, horretarako Udalbatzako kideek eta udaleko langile teknikoek osatutako Azterketa Batzordea aldez aurretik izendatu ondoren.

Bigarrena.- 0-2 urte bitarteko haurrentzat beren hezkuntza eta zaintzako ingurune pertsonal eta kolektiboan jantoki zerbitzua emateko memoria eta erregelamendu-proiektua kontuan hartzea.

Hirugarrena.- Zerbitzu publikoa kudeatzeko modutzat hartzea kontratazio publikoaren bidezko zeharkako kudeaketa.

Laugarrena.- Memoria eta erregelamendu proiektua hogeita hamar egun naturaleko epean jendaurrean jartzea, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta udal honetako iragarki-oholean iragarriz, partikularrek eta erakundeek egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten. Halaber, interesdunen eskura egongo da Udalaren web orrian (www.oiartzun.eus).”

Espedienteak aplikatu beharreko araudian aurreikusitako izapideak bete ditu, eta, jendaurreko informazio-aldia amaitu eta alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Udalbatzari dagokio proiektua behin betiko onartzea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 97.1.d) artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horrenbestez, udal honetako Idazkariak egindako txostena ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko irailaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haurrentzat, beren hezkuntza- eta zaintza-ingurune pertsonal eta kolektiboan, jantoki-zerbitzua emateko jarduera ekonomikoa gauzatzea behin betiko onartzea, bai eta espedientean jasotako justifikazio-memoria eta erregelamendua ere.

Bigarrena.- Zerbitzu publikoa kudeatzeko modutzat kontratazio publikoaren bidezko zeharkako kudeaketa onartzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta erregelamenduaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, EAJ/PNV taldeko Janire Mitxelena bozeramaileak hitza hartzen du.

“Gai honen inguruko dokumentuak eskatu genituen eta bidali zitzaizkigun eta nahiko argigarriak izan dira. Baina gaur egun arreta pizten digun galdera da, ea zergatik hasieratik sukaldea zergatik ez zen Haurreskolak Partzuergo publikoari bideratu eta OIUP-eren esku utzi dela. Ikusten dugu hurrengo lagapenean —Ikastolari egingo zaion lagapen horretan—, oker ez banago behintzat, sukaldea ez dela lagapen horretan sartzen. Orduan, zein irizpideren arabera erabaki zenuten sukaldea Urmendiren edo OIUP-eren esku mantentzea, eta zergatik ez zen Haurreskola publikoaren esku jarri?

Alkateak hitza hartzen du eta honako erantzuten dio:

“Arrazoi bakar batengatik: Haurreskolak Partzuergoak ez duelako jantoki-zerbitzurik bere zerbitzuaren barruan kontenplatzen. Berak jasota dauka bere hitzarmenean familiei eskaintzen dien bidea dela edo umeak tupper-arekin joatea, edo familiek beraiek antolatzea jantoki-zerbitzu hau. Alegia, Haurreskolak Partzuergoari bere horretan hasiera batetik esan zitzaiguna zen ez zitzaiela interesatzen sukalde-zerbitzuarekin jarraitzea.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Ondorioz, Udalak egin duena da zerbitzu publiko berri bat sortzeko ahalegina, ulertuta orain arte zerbitzu horrek oso balorazio ona eduki duela, familiek ohitura hori dutela, eta ona dela hainbat arrazoirengatik jantoki-zerbitzua eskaintzea eta ume guztiek —bakoitza bere tupper-arekin ibili beharrean— otordu orekatu, kalitatezko eta berdin bat edukitzea. Zerbitzu hori baloratuta, erabaki da zerbitzua hauentzat martxan jartzea. Horrek ez du esan nahi, hurrengo ikasturte batera begira —zuk esan bezala, sukaldea ez denez Ikastolari egingo zaion lagapenean gelditzuko eta Udalarena izaten jarraituko duenez—, aukerarik egongo ez denik sukalde hori berriro ere 0-2rako erabiltzeko; baina horrek eskatzen du Haurreskolak Partzuergoarekin lankidetza bat, familiekin lankidetza bat eta antolaketa bat aztertzea. Bitarte horretan, hau da eskaini nahi izan duguna, familiek ondo baloratutako zerbitzu bat izan delako, hutsune bat gelditzen zitzaigulako eta hutsune hori bete nahi genuelako.
Orduan, bozketara pasako gara: aldeko botoak? Aho batez onartua gelditzen da."

Eztabaida amaitu ondoren bozketara ekin diote. Udal honetako Idazkariak egindako txostena ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak 2026ko irailaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Oiartzungo Udalak 0-2 urte bitarteko haurrentzat, beren hezkuntza- eta zaintza-ingurune pertsonal eta kolektiboan, jantoki-zerbitzua emateko jarduera ekonomikoa gauzatzea behin betiko onartzea, bai eta espedientean jasotako justifikazio-memoria eta erregelamendua ere.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	16	12 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Hurrengo gaiarekin duten harremanarengatik Oihana Irastorza Gonzalez eta Garazi Urdampilleta Astibia aretotik ateratzen dira.

-IV-

URMENDI ERAIKINETAKO HAINBAT UNITATEEN LAGAPENA HAURTZARO IKASTOLAREN ALDE

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Oiartzungo Udala, Haurtzaro Ikastola Koop. eta Bianditz SL-k Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa eratu zuten Oiartzunerako hezkuntza-proiektuak sustatu eta kudeatzeko eta, bereziki, 0-3 urte bitarteko haur-hezkuntza zerbitzua modu bateratuan antolatu eta kudeatzeko.

Gaur egun indarrean dauden Partzuergoaren Estatutuetan, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa Oiartzungo Udalak eta Haurtzaro Ikastola S. C. sozietateak osatutako partzuergo misto gisa definitzen da, zuzenbide publikoko erakundea, nortasun juridiko propio eta bereiziarekin eta Oiartzungo Udalari atxikia.

Zerbitzu hori garatzeko, Udalbatzak, 2010eko abenduaren 1eko erabakiaren bidez, Oiartzungo Arau Subsidiarioetako 6A eremuko F1 lurzatiaren gaineko azalera-eskubidea eratzea onartu zuen Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren alde. Lurzati horretan Urmendi eraikina eraiki zen eta Partzuergoak kudeatutako haur-eskola zerbitzuari atxiki zitzaion.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak udal haur-eskolak finantzatzeko egiten zuen ekarpena bertan behera uzteko erabakiaren ondorioz, Oiartzungo Udalak, 2026ko apirilaren 21eko Osoko

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Bilkuran, Haurreskolak Partzuergoan integratzea eta 0-2 urte bitarteko haur-eskola zerbitzuaren kudeaketa haren esku uztea erabaki zuen.

Integrazio hori gauzatzeko, Oiartzungo Udalak eta Haurreskolak Partzuergoak lankidetza-hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren arabera, Udala Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuetara eta lankidetza-hitzarmenaren beraren klausuletara atxikitzen da, eta haur-eskola zerbitzua emateko beharrezko udal-instalazioak Haurreskolak Partzuergoaren esku jartzen dira, haien titulartasuna Udalari dagokiola mantenduz.

Hirugarrena.- Haurreskolak Partzuergoaren bidez 0-2 urte bitarteko zerbitzua emango bada ere, 2-3 urte bitarteko haur-hezkuntza zerbitzua haren jarduera-eremutik kanpo geratzen da. Horren ondorioz, zerbitzu horren jarraipena 2027ko irailaren 1etik aurrera Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietatearen bidez egitea aurreikusi da.

Haurtzaro Ikastola izan zen, hain zuzen ere, 2 urteko gelen hezkuntza-baimenaren jatorrizko titularra, eta baimen hori Partzuergoaren esku jarri zuen hezkuntza-proiektu bateratua eratu zenean. Egoera berrian, Partzuergoaren baimenetik bost unitateak kentzea eta Haurtzaro Ikastolak bere izenean dagokion baimena eskuratzea aurreikusi da.

Laugarrena.- Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak, 2026ko apirilaren 13an eta maiatzaren 14an hartutako erabakien bidez, Urmendi eraikinaren gaineko azalera-eskubidea amaitzea onartu zuen, besteak beste, Haurtzaro Ikastolak 2-3 urteko gelen baimena lortuz gero zerbitzua emateko beharrezko lokalak erabiltzeko aukera izango zuela baldintza gisa ezarrita.

Ondoren, Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 27ko erabakiaren bidez, azalera-eskubidea amaitutzat ematea onartu zuen eta, Haurtzaro Ikastolak Urmendiko instalazioen finantzaketan parte hartu zuela kontuan hartuta, 2-3 urteko haur-eskola zerbitzua emateko beharrezko lokalen erabilera Haurtzaro Ikastolari bermatzea onartu zuen.

Erabaki horretan berariaz jaso zen Haurtzaro Ikastolari Urmendiko instalazioetan 2-3 urteko zerbitzua emateko lokalen erabilera bermatuko zitzaiola, adostuko ziren baldintzetan, eta erabilera hori gauzatzeko aurrebaldintza izango zela Hezkuntza Sailak Haurtzaro Ikastolari dagokion hezkuntza-baimena ematea.

Bosgarrena.- Haurtzaro Ikastolak 2 urteko bost unitateetarako hezkuntza-baimena eskatu du. Hezkuntza Sailak, espediente hori izapidetzeko, Urmendi eraikinean erabiliko den espazioa zehazteko eskatu du; zehazki, bost ikasgela eta psikomotrizitate-gela, 50 ikaspostu bermatzeko.

Seigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bidez modu bateratuan antolatu eta kudeatu izan den 0-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua berrantolatu egingo da: 0-2 urte bitarteko haur-eskola zerbitzuaren kudeaketa Haurreskolak Partzuergoak hartu du, eta 2-3 urte bitarteko haur-hezkuntza zerbitzuari dagokionez, Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateak zerbitzu hori emateko beharrezko hezkuntza-baimena eskatu du.

Horrenbestez, OUIP-ek orain arte bere gain izan dituen eginkizunak beste erakunde batzuek hartuko dituzte, eta, ondorioz, OUIP-ek ez ditu aurrerantzean bere sorrera justifikatu zuten eginkizunak beteko.

Egoera horretan, eta Partzuergoaren egitura juridiko eta administratiboa mantentzeak Udalari dakarkion antolaketa- eta administrazio-karga ere kontuan hartuta, ez da justifikatzen Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari bere horretan eusteko beharra, eta, ondorioz, haren desegite-prozedura hastea egokitzat jotzen da.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

OIARTZUNGO
UDALA

Zazpigarrena.- Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren Estatutuetako 34.6 artikuluak, Partzuergoaren likidazio-araubidearen barruan, berariaz aurreikusten du Partzuergoa Oiartzungo Udalak eskatuta desegiten bada Haurtzaro Ikastola S. C., hala eskatzen badu, Haur Hezkuntzako lehen ziklorako Partzuergoaren alde emandako administrazio-baimenaren lagapen-hartzailea izango dela eta, era berean, hezkuntza-jarduera garatzeko 2011ko otsailaren 22an Partzuergoaren alde formalizatutako azalera-eskubidean subrogatuko dela.

Zortzigarrena.- Haurtzaro Ikastola S. C. herri-onurako kooperatiba da. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2004ko uztailaren 2an argitaratutako Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2004ko ekainaren 1eko Aginduaren bidez, Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateari herri-onurako izaera aitortu zitzaion.

Bederatzigarrena.- Urmendi hezkuntza-ekipamendua zerbitzu publikoko jabari publikoko ondasuna denez, haren erabilerari aplikatzekoak zaizkio, besteak beste, azaroaren 3ko 33/2003 Legean, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoan, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan jasotako ondare-arauak.

Haurtzaro Ikastolari aitortu nahi zaion erabilerak erabilera pribatiboaren izaera du, udal-jabari publikoko espazio jakin batzuen erabilera esklusiboa aitortzen baitzaio eta, ondorioz, gainerako interesdunen erabilera mugatzen edo baztertzen baita. Horrenbestez, erabilera horrek dagokion titulu habilitatzailea behar du, eta, kasu honetan, titulu hori jabari publikoko emakida da.

Nolanahi ere, emakida horrek ez du lankidetza-hitzarmenetik bereizitako negozio juridiko autonomoa izan behar. Izan ere, espazioen erabilera ez da berezko xedea duen ondare-aprobetxamendu autonomoa, baizik eta 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzuaren jarraipena bermatzeko lankidetza-harremanaren elementu instrumental eta xedeari lotua. Horrenbestez, bidezkoa da jabari publikoko emakida ondare-izaerako lankidetza-hitzarmenean txertatzea, udal-jabari publikoko espazioen erabilera pribatiboa ahalbidetzen duen titulu gisa. Hitzarmenean bertan zehaztuko dira emakidaren xedea, haren eraginpeko espazioak, iraupena, doakotasuna, erabilera-baldintzak, alderdien betebeharrak eta azkentzeko arrazoiak.

Emakida zuzenean emateari dagokionez, azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 artikuluak jabari publikoko emakidak zuzenean ematea ahalbidetzen du Lege horren 137.4 artikuluan aurreikusitako kasuetan edo behar bezala justifikatutako salbuespenezko inguruabarrak daudenean.

Espediente honetan Haurtzaro Ikastola S. C. sozietatearen aldeko zuzeneko emakida justifikatzen duten inguruabarrak gertatzen direla irizten zaio. Alde batetik, Haurtzaro Ikastola herri-onurako kooperatiba da eta erabileraren xedea interes orokorreko haur-hezkuntza zerbitzuaren jarraipena bermatzea da. Bestetik, erabilera-eskubidearen aitortzea ez da hirugarren bati *ex novo* egindako ondare-esleipen autonomoa, baizik eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren desegitearen eta haren bidez antolatutako 0-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzuaren berrantolaketaren ondorio zuzena.

Horrez gain, kontuan hartu behar dira Partzuergoaren Estatutuetako 34.6 artikuluak Haurtzaro Ikastolaren alde aurreikusitako araubidea eta Udalbatzak 2026ko maiatzaren 27an hartutako erabakia. Erabaki horren bidez, Partzuergoaren alde eratutako azalera-eskubidearen amaiera onartu zen eta, aldi berean, Haurtzaro Ikastolari 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua emateko beharrezko lokalen erabilera bermatzea erabaki zen, dagokion hezkuntza-baimena lortzearen baldintzapean.

Inguruabar horiek guztiak batera hartuta, Haurtzaro Ikastolaren aldeko zuzeneko emakida ez da udal-jabari publikoaren aprobetxamendu isolatu edo autonomo gisa eratzen, baizik eta aurretik zegoen hezkuntza- eta partzuergo-harremanaren berrantolaketaren eta 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzuaren jarraipena bermatzeko hartutako erabakien gauzatze gisa.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

OIARTZUNGO
UDALA

Horrenbestez, espedientean jasotako memoria, idazkariak emandako txostena, kontu-hartzailearen txostena, balorazio txostena, kanpo-txosten juridikoa, eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko irailaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa desegiteko prozedura hastea, Oiartzungo Udalak eskatuta.

Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa desegiteko prozedura hastea erabakitzen da, Oiartzungo Udalak hala eskatuta, Partzuergoaren Estatutuetako 34. artikuluan eta, bereziki, 34.6 artikuluan aurreikusitako araubidearekin bat etorriz.

Prozeduraren hasiera hori Oiartzungo Udalak eta Haurtzaro Ikastola S. C. sozietateak osatutako partzuergo mistoaren jarduera eta hezkuntza-zerbitzuaren antolaketa berrantolatzearen ondorioz justifikatzen da, kontuan hartuta 0-2 urte bitarteko haur-eskola zerbitzua Haurreskolak Partzuergoaren bidez emateko hartutako erabakia eta 2-3 urte bitarteko haur-hezkuntza zerbitzuaren jarraipena Haurtzaro Ikastola S. C. sozietatearen bidez egitea aurreikusi dela. Eta aipatu Estatutuen 34.6 artikuluak ezarritakoa betez egingo da eta, bereziki, a) atalean jasotako ondorioekin, hau da, Haurtzaro Ikastola S. C. sozietateak orain arte 2-3 urteko haur-eskolaren zerbitzuak erabilitako instalazioen lagapena eskuratzearena.

Prozedura honen xedea izango da Partzuergoaren desegitea eta, hala badagokio, haren ondoriozko likidazioa gauzatzea, Partzuergoaren Estatutuetan aurreikusitako araubideari jarraituz eta bertan jasotako eskubide, betebehar, ondare-elementu, administrazio-baimen eta bestelako harreman juridikoen destinoa zehaztuz.

Bigarrena.- Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateari Urmendi eraikinean 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua emateko beharrezko udal-instalazioen erabilera aitortzea, erabaki honi eranskin gisa atxikitako planoan zehazten den eremuaren gainean.

Erabilera-eskubidearen xede diren espazioak, espedientean jasotako dokumentazioaren arabera, honako hauek dira:

a) Bost unitate (horien artean zuzendaritza-idazkaritza bulegoa dago).
b) Erabilera anitzeko gela (psikomotrizitate-gela).
c) Jolastokia.

Era berean, IKASTOLAri aitortutako erabilera esklusiboko eskubidea lehen aipatutako espazioak behar bezala erabiltzeko beharrezkoak diren sarbide, igarobide eta komunikazio eremuetara hedatuko da, eraikinaren sarrera, korridoreak eta gainerako pasaguneak barne. Gainera, garbiketa-gela eta irakasleen komunak

Espazio horiek Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 6A eremuko F1 lurzatiaren, 19.007 erregistroko finkaren eta 9294070 katastro-erreferentziaren hegoaldeko zatian kokatzen dira, espedientean jasotako deskribapenaren arabera.

Hirugarrena.- Erabilera-eskubidea 2027ko irailaren 1etik aurrera izango da eraginkorra, betiere egun horretan Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateak 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua emateko Hezkuntza Sailaren beharrezko administrazio-baimena indarrean badu.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Baimena data horretan indarrean ez badago, erabilera-eskubidearen eraginkortasuna baimena lortzen den egunera atzeratuko da.

Laugarrena.- Erabilera 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua emateko soilik aitortzen da, eta ezin izango zaio bestelako erabilerarik eman Udalaren berariazko aurretiazko baimenik gabe.

Erabilera hori haur-hezkuntza zerbitzuaren jarraipenari lotutako erabilera instrumental eta xedeari lotua da, eta ez Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateari aitortutako ondasun-aprobetxamendu autonomoa.

Bosgarrena.- Erabilera-eskubidearen iraupena Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateak 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua emateko duen administrazio-baimenaren indarraldiari eta zerbitzu horren benetako prestazioari lotuta egongo da.

Nolanahi ere, erabilera-eskubidearen gehieneko iraupena hirurogeita hamabost (75) urtekoa izango da, 2027ko irailaren 1etik zenbatuta, edo baimena lortzen denetik hasita.

Ondorengo egoeretako edozein gertatuz gero, erabilera-eskubidea automatikoki amaituko da:

- Haurtzaro Ikastolak zerbitzua emateko administrazio-baimena galtzea, iraungitzea edo behin betiko amaitzea.
- Haurtzaro Ikastolak 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua behin betiko emateari uztea.
- Espazioak erabaki honetan aurreikusitakoaz bestelako xede baterako erabiltzea, Udalaren baimenik gabe.
- Interes publikoko gerora sortutako arrazoiek erabilera amaitzea beharrezko egiten duten kasuak, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
- Alderdiek hala adostea.

Seigarrena.- Erabilera doakoa izango da, eta Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateak ez du kanonik ordaindu beharko espazio horien erabileragatik. Doakotasuna haur-hezkuntza zerbitzuaren jarraipenari eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bidez garatutako hezkuntza-proiektuaren berrantolaketari lotuta dago.

Zazpigarrena.- Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateak honako betebehar hauek izango ditu:

- Espazioak 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzurako soilik erabiltzea.
- Higiezina eta haren instalazioak behar bezala zaindu eta kontserbatzea, erabileraren ondoriozko kalteez erantzunez.
- Indarrean dagoen hezkuntza-, segurtasun-, irisgarritasun-, osasun- eta gainerako araudi sektoriala betetzea.
- Udalak egokitzat jotzen dituen ikuskapenak ahalbidetzea.
- Espazioetan egin nahi diren obra edo aldaketetarako Udalaren aurretiazko baimena eskuratzea.
- Erabilera-eskubidea hirugarrenei ez lagatzea Udalaren berariazko baimenik gabe.
- Zerbitzua ematearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko beharrezko aseguruak indarrean edukitzea.

Zortzigarrena.- Udalak espazioen titulartasuna mantenduko du une oro.

Erabilera aitortzeak ez dio Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateari ondasunaren gaineko jabetza-eskubiderik emango, eta Udalak espazioen erabilera eta kontserbazio-egoera egiaztatzeko beharrezko ikuskapen- eta kontrol-ahalmenak izango ditu.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Bederatzigarrena.- Espazioen mantentze, kontserbazio, garbiketa, hornidura eta bestelako gastuen banaketa erabaki honi erantsiko zaion lankidetza hitzarmenean zehaztuko da.

Hamargarrena.- Erabaki honen bidez aitortzen den erabilera Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bidez garatutako haur-hezkuntza proiektuaren berrantolaketaren eta haren inguruan hartutako aurreko erabakien gauzatzea dela adieraztea.

Zehazki, kontuan hartzen da 2026ko maiatzaren 27ko udal-erabakiaren bidez Partzuergoaren aldeko azalera-eskubidearen amaiera onartu zela, Haurtzaro Ikastolari 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua emateko beharrezko lokalen erabilera bermatzeko baldintzarekin.

Era berean, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren Estatutuetako 34.6 artikuluak Haurtzaro Ikastolaren aldeko jarraipen-araubide berariazkoa aurreikusten du Partzuergoaren jarduera amaitzeko kasuan.

Hamaikagarrena.- Erabaki honi eranskin gisa txertatzea Urmendi eraikinean Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateak erabiliko dituen espazioak grafikoki mugatzen dituen planoa, eta plano hori erabakiaren parte banaezintzat jotzea.

Planoan Haurtzaro Ikastolaren erabilerako espazioak zehazten dira.

Hamabigarrena.- Haurtzaro Ikastola Koop. Sozietateari erabaki hau jakinaraztea eta erabilera-baldintzak berariaz onartzeko eskatzea.

Era berean, 2027ko irailaren 1a baino lehen, edo erabilera eraginkor bihurtu aurretik, Hezkuntza Sailak 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua emateko emandako administrazio-baimena egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Hamahirugarrena.- Erabaki honen berri ematea Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari, Haurtzaro Ikastola Kooperatiba Sozietateari eta Hezkuntza Sailari.

Hamalaugarrena.- Oiartzungo Udalaren eta Haurtzaro Ikastola S. C. entitatearen arteko ondare-izaerako lankidetza-hitzarmena onartzea. Hitzarmen horren bidez, 2-3 urteko haur-hezkuntza zerbitzua emateko lankidetza-esparrua ezartzen da, bai eta Urmendi eraikineko udal-instalazioen zati baten erabileraren emakida, erabaki honi erantsitako testuaren eta haren eranskinen arabera.

Hamabosgarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko eta erabileraren eraginkortasunerako beharrezko izapideak egiteko.

Ebazpen proposamena irakurri ondoren bozketara ekin diote. Espedientean jasotako memoria, idazkariak emandako txostena, kontu-hartzailearen txostena, balorazio txostena, kanpo-txosten juridikoa, eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko irailaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Oiartzungo Udalak Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa desegiteko prozedura hastea, Oiartzungo Udalak eskatuta.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	12	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

OIARTZUNGO
UDALA

Oihana Irastorza Gonzalez eta Garazi Urdampilleta Astibia areto nagusira sartzen dira.

Bozketa amaitu ondoren, Haurtzaro Ikastolako bozeramaileak hitza hartzen du ondorengoa adierazteko:

“Gustatuko litzaiguke adierazpen batzuk egitea, batez ere adierazpen horiek lotuta daudelako martxoaren 12an Ikastolak deituta EAJ bilera batera gonbidatu eta bertan esandakoarekin. Janire gerturatu zen, beste kideek bestelako betebehar batzuk bazituztelako, baina Janirek taldearen izenean hitz egin zuen eta taldearen bozeramaile-ardurak hartu zituen. Bilera hartan, gure kezka adierazi genion EAJri, batez ere bi urteko gelen afera nola zegoen ikusita, eta ikusten genuelako batetik eta bestetik gaia korapilatzen ari zela.

Aterako dut bileraren akta: bertan, gai horren harira, EAJri planteatu zitzaion ea zein laguntza eta babes eskainiko lioketen Ikastolari bi urteko gelak lortzeko edo berreskuratzeko prozesu horretan, lehen aipatu den bezalaxe, berreskurapen-prozesu bat delako. Erantzuna, momentu horretan, izan zen Urmendiren gaia administratiboa izan zela, garbi zegoela Udalak ezin zuela finantzaketa bere gain hartu eta, ondorioz, sistema publikoan sartu behar zela bai ala bai, sistema publikoak tokian tokikoa lantzea bermatzen zuelako.

Eta, bi urteko gelei buruz jarraituz, esan zenuten bazenekitela Ikastolak eskaera egina zuela, Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarriak zinetela eta, bertatik, Hezkuntza Sailak adierazia zizuela Hezkuntza Sailetik Ikastolari emango zitzaizkiola bi urteko gelak, baina horretarako, prozesu administratibo horretan, uko egin behar zitzaiola zerbitzu horri. Udalak egindako eskaera ez zela egokia izan —jarduera-eskualdatzea eskatua zela eta ez zitzaiola zerbitzuari uko egin— eta, ondorioz, hori izan zela guk bere garaian bi urteko gelak ez lortzeko arrazoi nagusia. Hori egiten zenean, arazorik gabe bi urteko gelak Ikastolari emango zitzaizkiola. Hori zela Hezkuntza Sailetik zuek jasotako erantzuna.

Elkarrizketak aurrera egin zuen, eta guk hortik atera genuen ondorioa zen zuen lankidetza eta bitartekaritza bagenuela Hezkuntza Sailarekin, eta neurri batean babestu egiten zenutela Oiartzungo herrian bi urteko gela horiek Haurtzarok ere berreskuratzeko ahalegina egitea. Galdetu genuen ea baimenduko zitzaigun bi lerro izaten jarraitzea eta zuen adierazpena momentu horretan izan zen hori ez zegoela Udalaren eskumenetan, ez zela Udalaren esku, baina kezkaren berri helaraziko zeniotela Hezkuntza Sailari. Guk jarrera horrekin, egia esateko, poza hartu genuen; jarrera hori pozgarritzat hartu genuen, ulertu genuelako zuek ere ikusten zenutela bitartekaritza hori Hezkuntza Sailarekin egiteko aukera, eta aitortzen zenutelako neurri batean Ikastolak Oiartzungo herrian bi urteko gela horiek berreskuratzea ezinbestekoa zela.

OIUP-en edo Urmendin egondako bi urteko gela horiek Ikastolak izatea, beraz, normaltzat ematen zenuten. Era berean, aipatzen zenuten zuek izango zinetela Hezkuntza Sailarekin gai horretaz hitz egingo zenutenak.

Gaur Udalak espazioaren lagapenaren inguruan egin duen prozesu hau guztia prozesu administratiboa dela kontsideratzen dugu. Gela horien baimena eskuratzeko, ezinbestean espazioaren erabilerarekiko baldintza jartzen digu Hezkuntza Sailak. Orduan, ez dugu oso ongi ulertzen hasiera batean erakutsitako jarrera positibo hura —eta ulertzea Haurtzaro Ikastolak bi urteko gelak berreskuratzeko ez zuela inolako oztoporik—, bat-batean orain abstenitzeko arrazoi bihurtzea. Bi urteko gelen erabilera-eskubide hori ezinbesteko baldintzatzat jartzen digu Hezkuntza Sailak bi urteko gelen baimenak eskuratzeko, eta hasiera batean laguntza- eta kolaborazio-jarrera erakutsi zenuten arren, orain ikusten ari garena da ez dela horrela. Beraz, agian proposamena litzateke bozka birplanteatzea, batez ere hasierako jarrera horrekin bat etor dadin.

Janire Mitxelenak hitza hartzen du honakoa erantzunez:

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

“Arrazoia duzu bilera horretan esandako guztiari buruz; komentatu nuen eta Hezkuntza Sailarekin kontaktu zuzenean egon nintzen. Are gehiago, esan nizuen zergatik ez zen lortu: nahiz eta pleno honetan behin baino gehiagotan esan izan diguten arazoa ez zela baja/altarena, azkenean argi gelditu da hori izan dela arazoa, gaur-gaurkoz Ikastolak ez daukalako HH2ko gela planifikatua.

Gure abstentzioa da, agian, gauzak beste modu batean egin zitezkeelako eta hau lehenago egin beharko zelako, besterik gabe. Ez da ez gaudela ados edo kolaboratzen jarraituko ez dugula; beti egongo gara zuen disposizioan behar duzuenerako, eta, gainera, guk beti helarazi izan diogu Hezkuntzari zuek daukazuen kezka hori. Beraz, gure abstentzioa hortik doa gehienbat. Bozka birplanteatu? Gaur-gaurkoz ez dugu birplanteatuko, gaia ez doalako hortik; gure abstentzioa ez da Haurtzaro Ikastolaren aurkako jarrera bat, natural bezala hartzen dugulako Haurtzaro Ikastolak ere aukera eta eskubide bera eduki behar duela hezkuntza publikoak daukan bezala. Beraz, ez dugu birplanteatuko, hau lehenago egin beharko zelako iruditzen zaigulako, besterik gabe.”

Eztabaida amaitutzat ematen da eta Alkateak hartzen du hitza.

-V-

2026RAKO ZERGA ORDENANTZAREN HIRUGARREN ALDAKETA: OIARTZUNGO HAUR ESKOLAKO JANTOKI ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK EZARTZEA

Lehenengoa. Udala 2026rako Zerga Ordenantzaren hirugarren aldaketa izapidetzen ari da, 2026ER010004 espedientean.

Bigarrena. Espedienteak Oiartzungo haur eskolako jantoki zerbitzuaren erabileragatiko prezio publikoak arautzeko proposamena jasotzen du. Proposamena ordenantza fiskalen 7. atalean txertatzea aurreikusten da, 7.14 epigrafe gisa.

Hirugarrena. Kultur teknikariak txosten tekniko-ekonomikoa egin du, zerbitzua martxan jartzeko eta erabiltzaileei kobratu beharreko prezioa zehazteko. Txosten horretan jasotzen dira zerbitzuaren aurreikusitako kostua, prezio publikoaren bidez aurreikusitako diru-sarrerak eta ordenantza fiskalean txertatu beharreko testu-proposamena.

Laugarrena. Txostenean, teknikariak jantoki zerbitzuaren prezio publikoa eguneko 6,45 euro izatea proposatzen du, kalkulatutako kostu osoaren azpitik. Justifikazio memorian interes publikoko arrazoi hauek jaso ditu:

- Oiartzungo hezkuntza komunitateko familien kontziliazioa eta hezkuntza osasungarriaren lan ildoa sustatzea;
- haurrentzat janaria prestatzeko eta zerbitzatzeko kalitatezko jantoki zerbitzua mantentzea Oiartzunen hezkuntza komunitateko familientzat;
- osasun Publikoa eta prebentzioa indartzea;
- jatorri eta ahalmen ekonomiko ezberdinetako haurren segregazioaren aurka lan egitea;
- Tokiko Ekonomia eta Lehen Sektorea bultzatzea;
- ingurumen errekurtsoak optimizatzea.

Bosgarrena. Idazkaritzak txosten juridikoa eman du, eta bertan ez da eragozpen juridikorik jasotzen espedientea Udalbatzaren Osoko Bilkuraren onespenera eramateko, aurretiaz Kontu-hartzailetzaren txostena eta Antolaketa eta Kontu Berezien Informazio Batzordearen irizpena jasota.

Seigarrena. Kontu-hartzailetzak txostena eman du, adieraziz espedientean jasotako interes publikoko arrazoiek aukera ematen dutela proposatutako prezioa bideratzeko, organo eskudunak arrazoi horiek

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

bere egiten baditu. Horrenbestez, ikuspegi ekonomiko-finantzariotik eta barne-kontroleko ikuspegitik ez du eragozpenik ikusi tramitazioarekin jarraitzeko, bertan jasotako oharrekin.

Horrenbestez, espedientean jasotako txosten tekniko-ekonomikoak, Kontu-hartzailetzaren txostena eta Idazkaritzaren txosten juridikoa ikusita eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordea, 2026ko irailaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa. Oiartzungo Udalaren 2026rako Zerga Ordenantzaren hirugarren aldaketa onartzea, 2026ER010004 espedientean jasotako baldintzetan.

Bigarrena. Onartzea ordenantza fiskalen 7. atalean 7.14 epigrafea txertatzea, Oiartzungo haur eskolako jantoki zerbitzuaren erabileragatiko prezio publikoak arautzeko, akordio honen I. eranskinean jasotako testu osoaren arabera.

Hirugarrena. Ezartzea 7.14 epigrafean jasotako Oiartzungo haur eskolako jantoki zerbitzuaren erabileragatiko prezio publikoak testuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Ebazpen proposamena irakurri ondoren bozketara ekin diote. Espedientean jasotako txosten tekniko-ekonomikoak, Kontu-hartzailetzaren txostena eta Idazkaritzaren txosten juridikoa ikusita eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordea, 2026ko irailaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Oiartzungo Udalaren 2026rako Zerga Ordenantzaren hirugarren aldaketa, 2026ER010004 espedientean jasotako baldintzetan.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	16	12 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VI-

2027RAKO ZERGA ORDENANTZAK

Lehenengoa. Udala 2027rako Zerga Ordenantzen aldaketa izapidetzen ari da, 2026ER010005 espedientean.

Bigarrena. Zerga ordenantzak urtero Udalak hartzen dituen erabaki ekonomiko garrantzitsuenetakoak dira; izan ere, horien bidez arautzen dira udal aurrekontuko 1., 2. eta 3. kapituluetako diru-sarrerak, hau da, zergak, tasak eta prezio publikoak. Diru-sarrera horiek udalaren diru-sarrera propio nagusiak dira, eta Udalak horien gainean du erabakitzeko eta jarduteko ahalmen handiena.

Hirugarrena. 2027ko ekitaldirako zerga-ordenantzak prestatzeko eta udalaren tributu-politika aztertzeko helburuarekin, Udaleko Kontu-hartzailetzak txosten ekonomiko-finantzario eta tributarioa egin du. Txosten horretan udalaren diru-sarreren egitura eta bilakaera aztertu dira, bereziki zerga, tasa eta prezio publikoetatik eratorritako diru-sarrerak, baita udalaren finantza-egoera, KPI-aren bilakaera, indarrean dauden ordenantzen egokitasuna, aplikagarri den foru araudiaren azken aldaketak, inguruko udalerriekin egindako alderaketak eta udal tributu-sistemaren gainerako alderdi esanguratsuak ere. Era

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

berean, tributu-figura bakoitzari lotutako karga-tasak, hobariak, salbuespenak, diru-bilketa ahalmena eta ordenantzen eguneratze-proposamenak aztertu dira. Azterketa horren ondorioz, Kontu-hartzailetzak hainbat proposamen eta gomendio formulatu ditu, udalaren finantza-oreka, diru-sarreren bilakaera eta zerga-sistemaren iraunkortasuna kontuan hartuta.

Laugarrena. Bestalde, udaleko sailei eskatu zaie beren zerbitzuetako tasa eta prezio publikoak berrikusteko, eta, hala badagokio, 2027ko ekitaldirako egokitzat jotzen dituzten aldaketa-proposamenak aurkezteko. Horren ondorioz, Kultura, Ingurumena, Ongizatea, Idazkaritza eta Kirol sailek beren proposamenak aurkeztu dituzte.

Bosgarrena. Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan egiten diren egonaldi turistikoen gaineko zergari buruzko ekainaren 12ko 3/2026 Foru Arauak tributu berri bat ezarri du, 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoa. Horren ondorioz, Oiartzungo Udalak lehen aldiz onartu behar du turismo-zergaren ordenantza fiskala, zerga horri aplikatu beharreko karga-tasak eta gainerako zehaztapenak arautzeko. Hori dela eta, espediente honetan orain arte indarrean egon diren zerga ordenantzen aldaketak ez ezik, turismo-zergaren ordenantza fiskal berriaren hasierako onespena ere izapidetzen da.

Seigarrena. Kontu-hartzailetzak egindako txostena, udal sailek aurkeztutako proposamenak eta aplikagarria den araudia aztertu ondoren, 2027rako zerga-ordenantzen aldaketa eta turismo-zergaren ordenantza fiskalaren hasierako onespena jasotzen dituen akordio-proposamen hau prestatu da.

Zazpigarrena. Idazkariak txosten juridikoa eman du, eta bertan ez da eragozpen juridikorik jasotzen espedientea Udalbatzaren Osoko Bilkuraren onespenera eramateko, aurretiaz Informazio Batzordearen irizpena jasota.

Azpimarratu behar da hainbat araudik antolatzen dituztela eta aintzat hartu behar direla zerga-ordenantzak egiten direnean: besteak beste, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko Araua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta, lehen aipatu bezala, Egonaldi Turistikoen gaineko Zergari buruzko arau berria ere bai. Prozedura ere araututa dago, eta prozedura horren arabera egiten ari gara guzti hau.

Balorazioan esateko azpimarragarriak honakoak dira: 2026ko uztaileko KPI-aren igoera % 3,7koa izan zen, eta txostenean aipatzen da Oiartzungo Udalaren aurrekontu-sarreretan oreka egokia dagoela gaur-gaurkoz, kontuan hartzen baldin baditugu Udalak berak eskuratzen dituen diru-sarrerak edo Foru Funtsetik jasotzen duena; bien arteko oreka egokia dela esaten da, eta garrantzitsua dela horri eustea finantza-autonomia bermatzeko.

Jasota dago ere txostenean Oiartzungo Udalak hainbat salbuespen eta hobari ezarri dituela egoera zaurgarrian dauden herritarrak laguntzeko eta, ondorioz, zerbitzuei eusteko proposatzen da ordenantza fiskalen igoera orokorra % 2,5ekoa izatea. Alde batetik, horrela Udalaren finantza-autonomiari eusteaz gain, azken hamarkadako joerari ere jarraitzen zaio: alegia, igoera KPI-aren igoeraren azpitik mantentzea, herritarren erosteko ahalmenean ahalik eta eragin txikiena edukitzeko, baina betiere gure zerbitzuak behar bezala eskaini ahal izateko.

Azpimarratzekoa da, bestalde, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren (OHZ) gainkargu bat aplikatzea proposatzen dela ezohiko etxebizitzen edo hutsik dauden etxebizitzen kasuetarako: % 150ekoa izatea proposatzen da, gaur-gaurkoz % 100ekoa zenean. Salbuespen-kasu batzuk ere egongo dira; lehen zeuden berdinak kontuan hartuko dira. Ondasun Higiezinen gaineko Zergako hobari berriak ere proposatzen dira, lehenengoz Foru Arauak proposatzen edo onartzen duelako guraso bakarreko familientzako eta genero-indarkeriaren biktimentzako hobariak ezartzea; Oiartzungo Udalak egoki

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

irizten dio hobari hauek aplikatzeari eta, beraz, bi kolektibo horientzako hobari berriak ezartzea proposatzen du. Familia ugarien kasuan, lehendik ere aplikatzen ziren hobari horiek, baina kasu honetan bi betekizun gehigarri ezartzea proposatzen da: hain zuzen ere, ondare-mailaren muga eta bigarren etxebizitzarik ez izatea aipatutako familia ugari horiek. Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinen kasuan, Oiartzunen gaur-gaurkoz ez dago horrelako higiezinik —hauek dira aireportuak, portuak edo azpiegitura handi horiek—, baina egongo balitz, egoki jotzen da karga-tasa altuena aplikatzea, % 0,7koa, besteak beste ezaugarri bereziak dituzten ondasun horiek bestelako ondorio batzuk izaten dituztelako herritarren ongizatean, ingurunean eta abar.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) koefizienteetan, eragiketa-bolumenaren araberako ponderazio-irizpide bat txertatzea planteatzen da, jarduera ekonomiko handiena duten subjektuen ekarpena haien dimentsio ekonomikoarekin hobeto lotzeko.

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga —hau gainbalioa da— modu mailakatuan aplikatzea proposatzen da; hau ere zerbait berria da. Karga-tasa hau mailakatua ezartzeak esan nahi du higiezin hori zenbat eta denbora gehiago igaro ondasuna eskuratu zenetik saltzen den momentura arte, orduan eta portzentaje edo karga-tasa txikiagoa aplikatuko litzaiokeela. Honen helburua da, Oiartzungo Etxebizitza Planarekin bat eginda, espekulazio-mugimenduak zergapetzea: alegia, norbaitek etxebizitza bat eskuratzen baldin badu handik bi urtera saltzeko, ulertzen da espekulazioa egiteko erosten duela, eta hori gehiago zigortzea ohiko etxebizitzak baino.

Turismo-zergari dagokionez, proposatzen da eskualde mailako ikuspegi eraginkor bat beharko genukeela —gogoeta bat eskatzen duela honek eskualdeko gainerako udalekin eta sektoreko eragile nagusiekin— eta, ondorioz, nolabait zuhurtziaz hastea tasa hau aplikatzen: tasa baxuena aplikatzea establezimendu gehienei, kenduta etxebizitza edo apartamentu turistikoei —hau ere gure Etxebizitza Planarekin bat eginez, etxebizitzak ez ditugulako turismorako bideratu nahi, baizik eta bizitoki izan daitezen— eta baita 4 izarretik gorako establezimenduei ere. Beraz, bi kasu horietan tasa gorena aplikatzea proposatzen da, eta gainerakoetan tasa baxuena.

Hondakinen tasan ez da aparteko igoerarik proposatzen; igoera orokorra aplikatuko genuke, % 2,5ekoa. Jakina da legealdi honetan hondakinen defizitaren inguruan lanketa bat egin dela eta gogoeta bat egin behar izan dugula, Europako legediak hala eskatzen zigulako. Eta urriaren 1etik aurrera industrialdeetako hondakinen bilketak berrikuntzak edukiko dituenez, urtebeteko denbora bat hartzea proposatzen da, ikusteko mugimendu hori eginda nolako diru-sarrerak edukitzen dituen Oiartzungo Udalak, eta ea horrekin hondakinen defizita guztiz estaltzea lortzen dugun, herritarren bizkar tasa hori igotzen ibili beharrik izan gabe. Beraz, igoera orokorra aplikatzea proposatzen da.

Eta, azkenik, izoztea proposatzen diren zerga eta tasa batzuk ere badaude: Larre-tasa (lehen sektoreko langileak sustatzeko eta suteen aurkako basoen kudeaketa aitortzeko); Musika Eskolako eta ibilgailu elektrikoen karga-puntuetako tasak; Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, udalekuetako tasa, Taxibusa eta Landetxe Kultur Aretoko sarrerak. Horrez gain, proposatzen da tasa berri bat ezartzea herriko sormena sustatzeko: Oiartzungo artistek eskaintzen dituzten ikuskizunetan 6 euroko sarrera bat onartzea (ohikoa 12 eurotan egonik). Enpresek ordaintzen duten uraren tasan ere aldaketa bat egitea proposatzen da, tasa finkoan beherapen bat eginda, ur-kontsumoak pisu handiagoa har dezan. Eta, azkenik, kiroldegian bazkide berrientzako matrikulazioa jaistea proposatzen da: 96,50 eurokoa izan beharrean, bakarkako kasuan 56,90 eurokoa izatea, eta 81,10 eurokoa familien kasuan. Gehitzen da ere kanpoko igerilekuetarako arratsaldeko prezio bat, 4,70 euroan. Mantendu egiten dira orain arteko abonu murriztuak eta desgaitasuna duten pertsonentzako prezio bereziak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, espedientean jasotako txosten tekniko-ekonomikoak, Kontu-hartzailetzaren txostena eta Idazkaritzaren txosten juridikoa ikusita eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko irailaren 17an, emandako diktamenarekin adostasunean, honako akordio hau hartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

OIARTZUNGO
UDALA

AKORDIOA

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea Oiartzungo Udalaren 2027rako Zerga Ordenantzen aldaketari, I. eranskinean jasotako baldintzetan. I. eranskinean berariaz aldatzen ez diren ordenantza, artikulu, apartatu, tarifa, hobari eta gainerako xedapen guztiak indarrean mantenduko dira, une honetan duten idazketarekin.

Bigarrena.- Hasierako onespena ematea egonaldi turistikoen gaineko zergaren ordenantza fiskalari, I. eranskinean jasotako baldintzetan.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea hogeita hamar (30) lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren iragarki-taulan, egoitza elektronikoan eta probintzian gehien zabaldutako egunkarietako batean argitaratuz, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Laugarrena.- Jendaurreko informazioaren epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako akordioa behin betiko onartutzat joko da, beste akordio espresorik hartu beharrik gabe, eta ordenantza fiskalaren aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bosgarrena.- Erreklamazioak aurkezten badira, Udalbatzak horiek ebatzi beharko ditu, eta, hala badagokio, ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartu.

Seigarrena.- Ordenantza fiskalen aldaketaren behin betiko testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sartzeko beharrezko baldintza gisa.

Zazpigarrena.- Ordenantza fiskalen aldaketek eta egonaldi turistikoen gaineko zergaren ordenantza fiskalak 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak, betiere behin betiko onespena eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea data horren aurretik gauzatu badira.

Zortzigarrena.- Behin betiko onartutako aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, indarrean dagoen zerga ordenantza guztien testu bategina udalaren webgunean eta egoitza elektronikoan argitaratzea.

Janire Mitxelenak hitza hartzen du eta honakoa adierazten du:

“Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiogu Kontu-hartzaileari, aurreko batzordean ordenantza fiskalen proposamena hain modu zehatz eta argian aurkezteagatik. Lan hori eskertu nahi dugu, eta aitortu behar dugu aurkeztutako proposamenean ez dugula ezer neurriz kanpokorik eta zentzugaberik ikusten. Era berean, bereziki positiboki baloratzen dugu turismo-tasa ezartzeko egindako proposamena. Uste dugu gai hori lantzea garrantzitsua dela eta, printzipioz, hor markatutako prezioak egokiak direla; gero aurrerantzean baloratuko da aldaketarik egin behar den, baina positibotzat hartzen dugu, baita planteatutako genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako hobariak eta abar ere.

Urteroko gaia da hondakinen tasari dagokionez: espero dugu proposatutako eguneratzearekin defizita bera ere zerora iristea, baina badakigu hala ere gai horretan badagoela zer aztertu. Bereziki hondakinen kudeaketari dagokionez, gure taldetik beti gauza berdina esaten dugu: beste bilketa-eredu batzuk badaude, eta uste dugu horiek aztertu beharko liratekeela, birziklatze-maila egokia eta kostu txikiagoa bateratzeko helburuarekin. Ikusiko dugu ondoren industrialdeko proiektu horrek ere zer erantzun ematen duen, eta gure ustez beharrezkoa da aukera horiek datu objektiboekin aztertzea, bereziki herritarren diru-erabileran afekzio gutxiena edukitzeko.

Beraz, argi utzi nahi dugu ez gaudela aurkeztutako proposamenaren aurka, ezta gutxiago ere, baina ezin dugu aldeko botoa eman. Gure abstentzioak ez du esan nahi ordenantzak eguneratzearen aurka

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

gaudenik; aitzitik, proposamenak badituela hobetu edo behintzat hondakinen inguruan aztertu beharreko proposamenak edo ikuspegiak dauzkagula adierazten du. Horregatik, gure taldetik abstenitu egingo gara.”

Alkateak honakoa erantzuten dio:

“Nik pena pixka batekin hartzen dut abstentzioa, uste dudalako benetan lanketa on bat egin dela aurtengo ordenantza fiskal hauetan, azalpen egokiak jaso genituela eta uste dut, zuk esan bezala, saiatu garela egin beharreko egokitzapen guztiak egiten. Eta gogoratu nahiko nuke legealdi honetan gai izan garela akordio batera iristeko hondakinen inguruan, eta eskua luzatzen dizut bide horretan jarrai dezagun. Uste dut orain industrialdeetako bilketa honetan aldaketak eginda beste emaitza batzuk ikusiko direla: bai birziklatze-tasei dagokienez koska bat gora egingo dugula, eta ulertzen dut enpresariek ere zerbitzu hobe bat edukiko dutela, besteak beste gure hezitzaile propioak edukiko ditugulako eta edozein zalantza argitzeko momentuan erantzunak edukiko dituztelako. Uste dut honek —ikusi behar da, baina— ondorio egokiak izango dituela ikuspegi ekonomiko batetik ere bai. Eta, beraz, hasitako bidean jarrai dezagun proposatuko nizuke, ulertuta inoren kalterik ez duela % 80ko birziklatze-maila batera iristen den zerbitzu batek.”

Eztabaida amaitu ondoren bozketara ekin diote. Espedientean jasotako txosten tekniko-ekonomikoak, Kontu-hartzailetzaren txostena eta Idazkaritzaren txosten juridikoa ikusita eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko irailaren 17an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du hasierako onespena ematea Oiartzungo Udalaren 2027rako Zerga Ordenantzen aldaketari, I. eranskinean jasotako baldintzetan. I. eranskinean berariaz aldatzen ez diren ordenantza, artikulu, apartatu, tarifa, hobari eta gainerako xedapen guztiak indarrean mantenduz, une honetan duten idazketarekin.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	12	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

Oihana Irastorza Gonzalezek gaiarekin duen harremanarengatik aretotik ateratzen da.

-VII-

2026KO IRAILETIK ABENDURA BITARTEKO EKARPENA OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOARI (OUIP).

Lehenengoa.– Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa (aurrerantzean OUIP) 1999an eratu zen eta 2023an Oiartzungo udalari atxiki zitzaion. Bere estatutuak 2023/11/6ko GAOn argitaratuta daude. Bere kideak Oiartzungo Udala eta Haurtzaro Ikastola S. C. dira. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, nortasun juridiko propioa du eta jarduteko gaitasun osoa, bere helburuak betetzeko. Xedea Oiartzungo hezkuntza-proiektuak sustatzea eta kudeatzea da. Araubide juridikoa, nagusiki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea da. 2025-2026 ikasturtera arte, 0 eta 3 urteko haurrei haur-eskola zerbitzu integrala eskaini die.

Bigarrena.– Oiartzungo Udala OUIP-eko kide den heinean, partzuergoaren jardueraren finantzaketan parte hartu izan du, bere estatutuek eta organo eskudunek hartutako erabakiek ezarritako baldintzetan, bat etorriz Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitakoarekin.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Hirugarrena.– 2023. urtera arte, Oiartzungo Udalaren eta familien ekarpenekin finantzatu da nagusiki OUIP. Era berean, Oiartzungo Udalak Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso izan du urtero zerbitzua finantzatzen laguntzeko. 2023. urtean zerbitzua doakoa izatea onartu zuen Oiartzungo Udalak eta beraz familiek hezkuntza zerbitzuagatik ordaintzen zuten kuota kendu zen.

Laugarrena.– 2024. urteko azaroan Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen 2025-2026 ikasturtetik aurrera eten egingo zuela udal haur-eskolak finantzatzeko dirulaguntza. Ondoren, urte beteko moratoria eskatu eta onartu zen. Dirulaguntzarik gabe zerbitzua ematen jarraitzeak udal aurrekontuetan eragin ekonomiko esanguratsua izango zuela aurreikusi zen, eta horrek zalantzan jarri zuen ordura arteko antolaketa-ereduaren bideragarritasuna.

Bosgarrena.– Egoera horren aurrean, Oiartzungo Udalak eta OUIPek hainbat aukera aztertu dituzte 2025-2026 ikasturtean zehar, betiere bi helburu nagusi uztartuz: alde batetik, 0-3 urte bitarteko herriko haurren hezkuntza-arretaren jarraipena bermatzea, eta bestetik, udal aurrekontuetan sortutako finantza-arriskua nabarmen murriztea.

Seigarrena.– Lanketa horren ondorioz, 2025eko uztailaren 3an OUIP-eko Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen Hezkuntza Sailari eskatzea 2-3 urteko gelen hezkuntza-baimena OUIP-eko kide den Haurtzaro Ikastolari eskualdatzeko. 2025eko irailaren 9an bidali zitzaion jakinarazpena Hezkuntza Sailari. Aldi berean, Haurtzaro Ikastolak 2025eko uztailean zerbitzu hori emateko baimena eskatua zuen.

2025eko abenduaren 10ean berriz bidali zitzaion eskaera Hezkuntza Sailari eta abenduaren 22ko Udalbatzarrean 2 urteko gelen baja eskaera egitea onartu zen.

Zazpigarrena.– 0-2 urteko haurren gelei dagokionean, erabaki da 2026-2027 ikasturtetik aurrera zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzaren Haurreskolak Partzuergoaren esku uztea. Horrenbestez, adin tarte horretako zerbitzuaren antolaketa eta langileen kostuak Haurreskolak Partzuergoak bere gain hartuko ditu.

Zortzigarrena.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila 2-3 urteko gelen espedientea izapidetzen ari den honetan, 2026ko uztailaren 10ean jakinarazi zuen gela horien Haurtzaro ikastolaren baimen eskaera 2026-2027 ikasturteko plangintzak ez duela barneratu. Hori dela eta, Hezkuntza Sailarekin uztailaren 16an egindako bileran adostu zen baimen-aldaketaren eragina 2027ko irailaren 1etik aurrera gauzatzea.

Bederatzigarrena.– Oiartzungo Udal Osoko Bilkurak 2026ko uztailaren 29an egindako saioan berretsi zuen Oiartzungo Udalaren eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren izenean, 2025eko abenduan udal osoko bilkuran onartutako 2 urteko gelen baja eskaeraren ondorioen data 2027ko irailaren 1era atzeratzea. Beraz, 2026-2027 ikasturtean, modu trantsitorioan, 2-3 urteko gelen zerbitzua OUIP-ek ematen jarraituko du.

Hamargarrena.– 2026ko urtarrilaren 12an, OUIP-ek 2026 urteko aurrekontua aurkeztu eta ekarpenaren proposamena luzatu zion Udalari, hileroko ekarpenak egiteko (2026KH100002 espedientea). Urte osoko ekarpena 893.272,80 €-tan kalkulatu zen eta zenbateko hori finkatzeko %2,5eko igoera aurreikusi zuten langileen soldatetan. Kontu-hartzaileak egin zuen txostenean zehaztu zuen, Espainiako Gobernuaren 14/2025 Errege lege-dekretuak zehaztutakoari jarraiki, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak gehienez %1,5ean igo daitezkeela 2026an. Soldaten %1,5eko igoera aplikatuz gero, pertsonal gastuaren murrizketa 9.002,84 € eta urteko ekarpena 884.269,96 €-koa litzakeela zehaztu zuen.

Hamaikagarrena.– Aipatutako espedientean kontu-hartzaileak egindako bigarren txostenean zehaztu zuen 2026ko irailetik aurrera OUIP-en kudeaketa aldatu egingo zela aurreikusita, urtarriletik abuztura bitarteko gastuei aurre egiteko ekarpena onartzea proposatu zuen (568.459,26 €), eta kudeaketa berria

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

zein izango den jakitean, beharrezkoa balitz, Partzuergoari egin beharreko gainontzeko ekarpenak onartzea. Hala, Oiartzungo Udalaren Osoko Bilkurako batzarrak, 2026ko otsailaren 25ean, ondorengo akordioa hartu zuen:

"Kontu-hartzaileak soldatak eguneratzeari egindako txostena kontuan izanik, honako ekarpena onartzea: 568.459,26 €-ko ekarpena (ekainean 126.324,28 € eta gainontzeko hilabeteetan, urtarriletik abuztura, 63.162,14 € hilabeteko) eta kudeaketa berria zein izango den jakitean, beharrezkoa balitz, Partzuergoari egin beharreko gainontzeko ekarpenak tramitatuko direla."

Hamabigarrena.– 2026-2027 ikasturtean 0-2 urteko zerbitzua Haurreskolak Partzuergoaren esku geratu denez, OUIP-ek 2-3 urteko gelen kudeaketa baino ez du egingo, modu transitorioan. Horren ondorioz, bere gastu-egitura nabarmen murriztu da eta 2026ko irailetik abendura bitarteko gastuei aurre egiteko 107.742,45 euroko ekarpena gauzatzeko eskatu dio Oiartzungo Udalari.

Hamahirugarrena.– Erabaki honen onarpena Udalbatzarraren eskumenekoa da. Txosten hau toki-erakundeen barne-kontrola arautzen duen araudian aurreikusitako aurretiazko fiskalizazio mugatuaren esparruan egin da, eta haren xedea aztertzea, Udalbatzaren ebazpenaren aurretik, OUIP-ek 2026an 2-3 urteko gelen haur-eskola zerbitzua finantzatzeko Oiartzungo Udalak egin beharreko ekarpena gauzatzeko nahikoa krediturik duen.

Horrenbestez, espedientean jasotako Udal kontu-hartzailetzaren txostena eta idazkaritzaren txosten juridikoa ikusita eta Antolaketa eta Kontu Bereziak, 2026ko irailaren 17an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren (OUIP) 2026ko irailetik abendura bitarteko funtzionamendu gastuei aurre egiteko 107.742,45 euroko ekarpena onartzea eta aurrekontuan aurreikusitako 1 0313.481.323.00.01.2026 partidatik (AD 1978-2026) bideratzea.

Bigarrena.- Ordainketa horrela banatzea: abenduan 43.096,98 € eta gainontzeko hilabeteetan (irailetik azarora) 21.548,49 € hilabeteko.

Janire Mitxelenak hitza hartzen du eta ondorengoa adierazten du:

"Gaur mahai gainean dugun proposamena 107.742,45 euroko ekarpena da. Argi utzi nahi dugu ez gaudela Urmendiko haurrei zerbitzua bermatzearen aurka, haurrek eta familiek kalitatezko hezkuntza-zerbitzua izatea nahi dugulako eta behar dutelako hori izatea. Gaur hitz egin nahi duguna diru publikoaz da, Oiartzungo herritar guztien diruaz, eta herritarrek eskubidea dute jakiteko zergatik iritsi garen egoera honetara, zergatik egin diren gauzak egin diren bezala, eta ea gastu hau saihesteko edo murrizteko aukerarik egon den.

Horren aurrean, galdera zuzena egin nahi dut: zergatik iritsi gara egoera honetara? Ba argi dago Udalak ez duelako jardueraren baja denboran eskatu eta Haurtzaro Ikastola HH2ko gelak planifikatu gabe gelditu dela. Oraintxe komentatu duzu, eta uztaileko plenoan ere hala esan zenuen, 2025eko abenduaren 22an jardueraren baja izapidetu zela eta orain baja hori irailera atzeratu dela. Guk, ordea, abenduko Osoko Bilkurako akordioa irakurri genuen eta bertan eskualdatzea jasotzen da, ez jardueraren baja. Eta, baja izapidetu baldin bazen, ez dugu ulertzen zergatik ez zen erreklamazio bat eskatu ahal izan baldin bazen; errealitatean halakorik ez zelako gertatu.

Orduan, badakigu ez dela nahikoa esatea Hezkuntza Sailak ez dituela gauzak ondo egin edo ez duela Udala informatu; Udalak azaldu beharko du zer egin duen hori saihesteko eta zer izapide egin zituen,

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

eta zergatik izan diren emaitza hauek. Deigarria egiten zaigu ekaineko plenoan eskualdatzea nahikoa zela esatea eta uztaileko plenoan eskualdatzea/baja izapidetu zela esatea. Argi izateko eta gauzak zergatik iritsi diren honaino argi edukitzeko: ez gaude ekarpenaren kontra, baina bai uste dugu gauzak ondo egin izan balira ez zela beharrezkoa izango ekarpen hau egitea.”

Alkateak, Janire Mitxelena andereak esandakoari honela erantzuten dio:

“2025eko udan hasi ginen izapide honekin; Hezkuntza Sailari jakinarazi genion zein zen gure borondatea, ez guk bakarrik, Haurtzaro Ikastolak ere bai. Bere eskumenekoa den arlo bat da, berak gidatu beharreko prozesu bat da —orain egiten ari den bezala, bestalde—. Orain badaukagu elkarrizketa hau, badaukagu interlokuzioa, badaukagu zalantza baten aurrean erantzungo digun pertsonarik —ez guk bakarrik, Haurtzaro Ikastolak ere bai—, duela urtebete ez bezala. Akaso Hezkuntza Sailean galdetu beharko dugu, ze jarraitzen dugu hemen pleno oro gauza berdina esaten, baina galdera hauen erantzuna daukana ez dago hemen, Hezkuntza Sailean baizik. Orduan, berresten dut guk ere 2025eko udatik borondatea adierazia geneukala, eta Hezkuntza Saila jakitun zela bi urteko gelen baimenaren eskualdatzea nahi genuela, guk hala esanda eta Haurtzaro Ikastolak hala esanda. Eta izapideak ez baldin badira behar bezala egin, Hezkuntza Sailera joan beharko genuke akaso biok elkarrekin; zuk esan duzu batekin bazenuela harreman zuzena, ba hari galdetu beharko genioke zergatik.

Egoera hau da: guk bai ikusten duguna da hemen, matrikulazio-garaian, 38 familiek hautu bat egin zutela. Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa gaur-gaurkoz oraindik indarrean dagoen tresna bat da, zerbitzu bat eskaini duena 27 urtean, eta familia batzuek horrekin jarraitzeko hautua egin dute. Eta hemen aldaketa etortzen denean, beste aukera bat egin beharko dute, baina oraingoz hautua egin dute eta guri dagokiguna erantzutea da: 38 familia daude, 38 haur daude, eta zerbitzua bermatu behar zaie.”

Janire Mitxelenak honela erantzuten dio:

“Dudarik gabe ez direla zerbitzu gabe utzi behar eta zerbitzua bermatu behar da, baina bai argi utzi nahiko genukeela espero dugula hemendik gauzak ikasi ditugula: eskualdatzeak berak ez duela balio, baja/alta bat izapidetu behar dela, eta hori atzeratzeak ondorio hauek ekartzen dituela. Besterik gabe.”

Eztabaida amaitu ondoren bozketara ekin diote. Espedientean jasotako Udal kontu-hartzailetzaren txostena eta idazkaritzaren txosten juridikoa ikusita eta Antolaketa eta Kontu Bereziak, 2026ko irailaren 17an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren (OUIP) 2026ko irailetik abendura bitarteko funtzionamendu gastuei aurre egiteko 107.742,45 euroko ekarpena onartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	12	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

Oihana Irastorza Gonzalez areto nagusira sartzen da.

-VIII-

OIARTZUNGO UDAL MUGAPEAN BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO ZERBITZUA ETA HORRETARAKO BEHARREZKOA DEN AUTOBUSAREN -XORROLA- HORNIDURA KONTRATUAREN ESLEIPENAREN ONARPENA

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

OIARTZUNGO
UDALA

2026ko ekainaren 24an, beste batzuen artean, Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- hornidura kontratuaren espedientea onartzea erabaki zuen, eta horretarako prozedura irekiari, erregulazio harmonizatukoa, hasiera ematea. Halaber, kontratua araupetzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta gastua onartzea erabaki zuen.

Lizitazioaren iragarkia 2026ko ekainaren 29an bidali zen Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora, eta Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko emandako epean, hiru lizitatzaile aurkeztu ziren: BENGOETXEA AUTOBUSAK S.A., SSBUS UTE eta CUADRA BIDEAN S.L.

Kontratazio mahaiak 2026ko abuztuaren 11ko bilkuran, lizitatzaile guztiak onartu ondoren, aurkeztutako proposamenak ireki zituen eta BENGOETXEA AUTOBUSAK S.A. enpresaren eskaintza, puntuaziorik altuena lortu zuena izan bazen ere, zerbitzu berezien orduko prezio unitarioei zegokienean neurriz kanpokoa edo anormaltzat kontsideratu beharrekoa zela ikusi zen, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluaren arabera.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 149. artikuluak arautzen duen prozedura jarraitu zen, eta 2026ko irailaren 10eko bilkuran kontratazio mahaiak, kontratuaren arduradunak egindako txostenean jasotakoarekin bat eginez, BENGOETXEA AUTOBUSAK S.A. enpresak eskaintzaren bideragarritasuna erabat eta behar bezala justifikatu zuela ondorioztatu zuen. Era berean, eta aurrekoa aintzat hartuta, kontratazio mahaiak aho batez erabaki zuen kontratuaren organo eskudunari kontratua BENGOETXEA AUTOBUSAK, S.A. enpresari esleitzeko proposamena egitea, ondorengo baldintzetan:

- Prezioa: 297.254,00 euro/urteko (BEZik gabe) – 326.979,40 €/urteko (BEZa barne).
- Zerbitzu berezien orduko prezio unitarioa 27,96 euro/orduko (BEZik gabe).
- 40 orduko poltsa.

Gauzak horrela, 2026ko irailaren 11ko 1806 zk.-dun Alkate Dekretuaren bidez BENGOETXEA AUTOBUSAK, S.A. enpresak egindako eskaintza onartzea erabaki zen, eta kontratua berari esleitzeko proposamena onartzea, 10 egun balioduneko epean ondorengo dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egitearekin batera:

a) Kontratatzeko daukan enpresa sailkapena, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa.
b) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztagiria.

BENGOETXEA AUTOBUSAK, S.A. enpresak eskatutako dokumentazioa aurkeztu du emandako epean, eta ziurtatu da enpresak kontratuan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, eta kontratua modu egokian beteko duela bermatzen 74.313,50 euroko behin betiko bermea eratu duela.

Horrenbestez, Udal idazkariak egindako txostena eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak, 2026ko irailaren 23an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- Esleitzea BENGOETXEA AUTOBUSAK, S.A. enpresari Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- hornidura kontratua, proposamenik onuragarriena delako Udalarentzat, ondoko zehaztapenekin:

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

- Prezioa: 326.979,40 euro/urtean (BEZa barne).
- Epea: urte bat, urtebeteko lau luzapen egiteko aukerarekin (guztira 5 urte).
- Kontratua aurkeztutako eskaintzan eta prozedura arautu duten administrazio-baldintza zehatzen agirietan, eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko du.

Gastua aurrekontuko honako partidaren kontura izango da: 1 0221.227.441.10.08 2026 (5527)

Bigarrena.- Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, ebazpen honen jakinarazpena lizitatzaileei bidaltzen zaienetik 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

Hirugarrena.- Ebazpen honi dagozkion jakinarazpenak eta argitalpenak egitea, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 151.artikuluarekin adostasunean.

Ebazpen proposamena irakurri ondoren bozketara ekin diote. Udal idazkariak egindako txostena eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak, 2026ko irailaren 23an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du BENGOETXEA AUTOBUSAK, S.A. enpresari Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- hornidura kontratua esleitzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	16	12 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-IX-

2027. URTEKO JAI EGUNA BERRESTEA

Ekainaren 9ko 90/2026 Dekretuaren bidez (2026ko uztailaren 16ko EHAAn argitaratua) Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2027. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartu zen.

Dekretuaren 2.2 artikuluak xedatzen du Udal bakoitzak bere herriko jaiegun ofizialari buruzko proposamena egin eta dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko diola hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Izan ere, herriko jai eguna zehazteko eskumena Lan eta Justizia Saileko Lurralde-ordezkariei dagokie.

Irailaren 14ko 1821/2026 Alkate Dekretuaren bidez, abuztuaren 3a (asteartea), Done Eztebe eguna, proposatu da 2027. urteko herriko jaiegun ofizial izateko.

Horrenbestez, bidezkoa da Alkatearen Dekretuaren bidez egindako proposamena berrestea eta dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinaraztea.

Horiek horrela, Udal Idazkariaren txostena eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak, 2026ko irailaren 17an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- Berrestea irailaren 14ko 1821/2026 Alkate Dekretuaren bidez egindako proposamena, zeinaren arabera abuztuaren 3a (asteartea), Done Eztebe eguna, proposatzen baita Oiartzungo 2027. urteko herriko jaiegun ofizial gisa.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Bigarrena.- Laneko eta Gizarte Segurantzako saileko Gipuzkoako lurralde-ordezkariari proposamen honen berri ematea.

Ebazpen proposamena irakurri ondoren bozketara ekin diote. Udal Idazkariaren txostena eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak, 2026ko irailaren 17an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, berretsi du irailaren 14ko 1821/2026 Alkate Dekretuaren bidez egindako proposamena, zeinaren arabera abuztuaren 3a (asteartea), Done Eztebe eguna, proposatzen baita Oiartzungo 2027. urteko herriko jaiegun ofizial gisa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	16	12 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-X-

Alkateak 2026ko uztailaren 29an hartutako erabakia, 1610 zbk. Dekretuaren berri ematen du.

“2026/08 KREDITU ALDAKETA. TRANSFERENTZIA: 20.000 €

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2026-KALD-000008-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikuluaren 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	336.613,22	20.000,00	316.613,22
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALAK ETA BESTE USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	**336.613,22**	**20.000,00**	**316.613,22**

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	11.700,00	20.000,00	31.700,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALAK ETA BESTE USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	**11.700,00**	**20.000,00**	**31.700,00**

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.”

-XI-

Alkateak, 2026ko irailaren 15ean hartutako erabakia, 1834 zbk. Dekretuaren berri ematen du.

“ BERRI EMATEA: 2026/09 KREDITU ALDAKETA. GAIKUNTZA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2026-KALD-000009-00 zenbakiduna.

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 31. artikuluaren 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	13.000,00
8	FINANTZA AKTIBOAK	14.400,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		**27.400,00**

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
3 (SARRERAK)	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	13.000,00
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	14.400,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		**27.400,00**

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

-XII-

Beste organoen jardueraren jarraipena Udal Idazkariak azaltzen du.

HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK) ETA PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA.

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:
2026eko uztailaren 24tik irailaren 18ra arte.
Zk. 2026/1546tik 2026/1855era.

Tokiko Gobernu Batzarra:

ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra birritan bildu da, 2026eko irailaren 8an eta 22an, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2026ko uztaileko eta abuztuko gastuak:

Loreak- eskelak	100,00
Bazkari, luntxak	161,88
Ikurriñak, garaikurrak, plakak, opariak…	130,00
Guztira	**391,88€**

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 19:10 direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

OIARTZUNGO UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria

OIARTZUNGO UDALA

Sin.: Oihane Mallagaray Revilla

EKS | CSV: ESKU422a6975-4948-48f6-b46e-f763b44b6bc3
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310